


GORBEIA

IBILBIDEAK
ITINERARIOS



AREATZA


12 AREATZAKO HIRIBILDUA VILLA DE AREATZA

12 AREATZAKO HIRIBILDUA VILLA DE AREATZA

Ibilbide txikia monumentu-multzoa bezala katalogatutako Areatzako gune historikotik. Jauregi nabarmenek eta etxe barrokoek iragana gogora ekarriko digute.

Pequeño paseo por el casco antiguo de Areatza, declarado conjunto monumental, donde notables palacios y casonas barrocas nos trasladan a épocas pasadas.

IRTEERA	Bainuetxea Balneario	SALIDA
HELMUGA	Karpo	LLEGADA
LUZERA	2,5 km	LONGITUD
GEHI.MALDA (+)	30 m	DESNIVEL (+) ACUMULADO
DENBORA	45'	TIEMPO ESTIMADO
ZAILTASUNA	erraza fácil	DIFICULTAD



AREATZAREN JATORRIA

Gasteiz eta kostaldearen arteko merkataritza bide bat ezartzeko asmoz, Juan Nuñez de Larak Villaro sortu zuen 1338. urtean, Arratia bailarako hiribildu bakarra. Villa de Haro izena jarri zion, bere emazte María Díaz Harokoaren familiaren omenez. Geroago, historian zehar horrela izendatu zen arren, Areatza edo Arenaza izena esleitu zioten, herria eraiki zen eremu hareatsuagatik. Hala ere, hau ez zen 1980. urtera arte gertatu, izena ofizialdu zen arte.

Estrategikoki eraikia zegoen: Uparan eta Arratia ibaien artean kokatu zuten hiribildua ur hesi batez inguratuta egoteko. Harresi txiki bat zuen babes bezala eta zubi bat ere bazuen zamalanetako animaliak ibaia zeharkatu ahal izateko. Horrez gain, bi ziren hiribildua iparraldetik hegoaldera zeharkatzen zuten kaleak, Bekokale eta Goikokale, gaur egun ere Erdi Aroko hiribilduaren izaera mantentzen dutenak.




Santa Isabel komentua
Convento de Santa Isabel

ORIGEN DE AREATZA


Con el objetivo de establecer una ruta comercial entre Vitoria-Gasteiz y la costa, Juan Nuñez de Lara creó Villaro en el año 1338, la única villa del valle de Arratia. Le puso el nombre de Villa de Haro en honor a la familia de su esposa María Díaz de Haro. Más tarde, a pesar de que se había denominado así durante la historia, se le adjudicó el nombre de Areatza o Arenaza, debido a la zona arenosa donde se había construido. Esto no ocurrió hasta 1980, cuando se oficializó el nombre.

Ubicado estratégicamente, se estableció entre los ríos Uparan y Arratia para que la villa estuviese rodeada por una barrera de agua. Contaba con una pequeña muralla como protección y un puente para cruzar los animales de carga. Además, eran dos las calles que cruzaban la villa de norte a sur, Bekokale y Goikokale, calles que hoy en día mantienen la esencia de la Edad Media.



Mudejar etxea
Casa Mudejar

www.gorbeiaeskadi.com



Ibilbidea

Herriaren ipar-mendebaldean dagoen bainuetxean hasiko dugu ibilbidea eta han ezkererako bide nagusiarri jarraituko diogu, herrigunerako norabidean. Zubira iritsi aurretik, bi eraikinen artean barneratzen den kale batetik igaroko gara, Santo Tomas basiliza ezagutzeko. Iturrimaur Pasealekura eramango gaituen aldapa igo, ezkerrean biratu eta zubi bat gurutzatu, eta Gorbeiarantz doan errepidera iritsiko gara. Bidegurutzean eskumatara egin eta metro gutxi batzuetan Iturrimorroko harrizko zubira iritsiko gara.

Orain herrigunera goaz Bartolome Deunaren kaletik. Igerilekuen eta frontoiaren ondokigara, eskuman harrizko arkua ikusi eta Areatza zeharkatzen duen errepide nagusira helduko gara. Bertan, San Bartolome eliza aurkituko dugu, dorre bat eta ate errenazentista bat gordetzen dituena. Tenplua ezkerretik inguratuko dugu eta 1344. urteko harri bat ikusiko dugu bere atean. Bekoerrotaren ondoko kaletik jaitsi eta emakumeen omenez egindako

"Areatzako sabelak" eskulturara helduko gara.

Herriko kaleetan barrena sartu aurretik, ezkerretik jarraituko dugu, Arratia ibaia Zubizarretik zeharkatu eta Santa Isabel komentua (XVI. mendekoa) bisitatuko dugu. Berrito ere eskulturara eta elizara itzuliko gara Zubizarra kaletik. Oraingoan, Kristo kalea jarraituko dugu lehenik eta Goikokale kalea ondoren, Gudarien plazara iristeko. Ibilbideak Erdi Aroko partzelen aztarnak ikusteko aukera ematen digu, batez ere Goikokalen. Gudarien plazara iristean, beste elementu aipagarri batzuk ere aurkituko ditugu: Batzokia, 1921ean eraikitako arkitektura neoeuskalduneko eraikina;

Gortazar jauregia (XVI. mendekoa), XVIII. mendeko marrazkiak dituena; udaletxea, hasieran eskola eta gero koartela izan zena; Askako iturria, gainean duen harriaren itxuragatik "alkatxofa iturria" bezala ezaguna dena; eta Rotaetxe jauregi barrokoa (XVIII. mendekoa), besteak beste.

Plaza atzean utzi eta Errukiñe kaletik jarraituko dugu. Bertan, mudejar estiloko etxe batek (XVI. mendekoak) ongietorria emango digu. Aurrera jarraituko dugu Goikoerrotako errota Errukiñeko basilizara iristeko, ur-jauzien ondoan. Azkenik, ibaiaren ibilguari jarraituko diogu pasealekutik Karpo zubira iritsi arte, eta han amaituko dugu ibilbidea.

Itinerario

Comenzamos el itinerario en el balneario, al noroeste del pueblo, donde seguimos el camino principal hacia la izquierda en dirección al casco urbano. Antes de llegar al puente, pasamos por una calle que se interna entre dos edificios para conocer la ermita de Santo Tomás. Después, bajamos por la calle que lleva al paseo Iturrimaur para girar a la izquierda y cruzar un puente y alcanzar la carretera que se encamina hacia Gorbeia. En este cruce viramos a la derecha y en unos pocos metros llegamos al puente de piedra de Iturrimorro.

Ahora nos dirigimos al casco por la calle Bartolome Deuna. Pasamos junto a las piscinas y el frontón, viendo al

poco un arco de piedra a nuestra derecha, para llegar a la carretera principal que atraviesa Areatza, donde encontramos la iglesia de San Bartolomé que conserva una torre y una puerta renacentista. Rodeamos el templo por la izquierda y podremos ver una piedra del año 1344 en su puerta. Después, bajamos por la calle junto al molino Bekoerota y llegamos a la escultura "Los vientres de Areatza" erigida en honor a las mujeres.

Antes de adentrarnos en las calles de la villa, continuamos por la izquierda para cruzar el río Arratia por el puente de Zubizarra y visitar el convento de Santa Isabel (s. XVI). Después, regresamos a la escultura y a la iglesia por la calle Zubizarra.

Esta vez, seguimos la calle Cristo primero y la calle Goikokale después para llegar a Gudarien plaza. El recorrido nos permite observar restos de las parcelaciones de la Edad Media, sobre todo en Goikokale. Al llegar a Gudarien plaza, también encontraremos varios elementos destacables: el Batzoki, edificio de arquitectura neovasca construido en 1921; el palacio Gortazar (s. XVI), cuya fachada tiene dibujos del siglo XVIII; el ayuntamiento, utilizado primero como escuela y después como cuartel; la fuente de Aska, conocida como "fuente de la alcachofa" por la forma de la piedra que tiene encima; y el palacio barroco de Rotaetxe (s. XVIII), entre otros.

Dejamos atrás la plaza para seguir por la calle Errukiñe, donde una casa de estilo mudejar (s. XVI) nos da la bienvenida. Después, continuamos adelante para llegar al molino de Goikoerota y la ermita de Errukiñe junto a los saltos de Arkotxa. Por último, seguimos el curso del río por el paseo hasta llegar al puente de Karpo donde finalizaremos el recorrido.

Gudarien plaza





track-a deskargatu
descárgate el track

Ibilbide hau herrigunetik doa; ibilaldia segurtasunez egin ahal izateko, deskargatu track-a zure GPS edo mugikorrean.

Este recorrido discurre por zona urbana; para poder realizar la ruta con seguridad, descarga el track en tu GPS o smartphone.

GOGORATU! IRECUERDA!

- Ingurunea, flora eta fauna errespetatu.** Zarata egitea ekidin, ez egin surik eta zure txakurra lotuta eraman.
- Ingurunea garbi mantendu.** Ez utzi zaborra bertan; utzi edukiontzietan edo eraman ezazu.
- Seinaleztapena errespetatu.** Prestatutako lekuetan aparkatu, bideak erabili eta atakak itxi.
- Arreta artzai txakurrekin.** utzi bakean, lanean daude. Hurbiltzen badira, lasai egon, ez egin korrikarik eta eraso bezala hartu dezaketen mehatuzko keinuak ekidin.
- Informazioa eskatzeko edo edozein arau-hauste salatzeko zonaldeko informazio bulegora hurbildu zaitzeteke.

- Respeto el entorno, la flora y la fauna.** Evita hacer ruido, no hagas fuego y lleva atado a tu perro.
- Mantén limpio el entorno.** No abandones basura; depositala en los contenedores o llévatela.
- Respeto la señalización.** Aparca en lugares habilitados, utiliza los caminos y cierra las cancelas.
- Atención a los perros pastores.** no los molestes, están trabajando. Si se acercan, mantén la calma, no corras y evita gestos amenazantes que puedan interpretar como un ataque.
- Para solicitar información o denunciar una infracción puedes acudir a las oficinas de turismo de la zona.

Ibilbidea Itinerario	Arku gotikoa Arco gótico
HASIERA INICIO	Zubia Puente
Mendiko ibilbide laburra Itinerario de Pequeño Recorrido	Errota Molino
Gorbeako Parketxea Parque de Gorbeia	Eliza Iglesia
Iturria Fuente	Komentua Convento
Ur-jauzia Salto	Baseliza Ermita
Tabernak, jatetxeak Bares, restaurantes	Udaletxea Ayuntamiento
Bus geltokia Parada autobús	Etxea Casa
Aparkalekua Aparcamiento	Jauregia Palacio
Bainuetxea Balneario	Eskultura Escultura
Igerilekuak Piscinas	



0 50 100 m

Martin Murok proposatutako ibilbidea
Recorrido propuesto por Martin Muro



12 AREATZAKO HIRIBILDUA
VILLA DE AREATZA



Aireko argazkia / ortofoto. 2017 - EGI/GV, geoEuskadi